

Ezkurdia
San Ferminetako
4 1/2ko finalean



Kirolak >> 11

Altsasuko Koxka taberna taldea
areto futboleko Kluben Arteko
Estatuko Txapelketa amateurreko
txapelduna



Kirolak >> 12

Hondakinen tratamendu tasa aldatzea aztergai

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak materia organikoaren bilketan ahalegina egiten dutenak saritzea aztertuko du

Mank-ek kutsatzen duenak edo gaika banatzen ez duenak gehiago ordaintzea proposatuko du

>> 5

Interneteko .EUS nabigazioa hasi da

Larunbatz geroztik 92 aitzindari .EUS domeinuarekin dabilta sarean

>> 3

Arakilgo Udala
ere isunen
kontra

>> 6

Euskarazko
hedabideak
diruz laguntzea
eskatu dute

Euskararen Nafar Kontseiluak egin dio eskaera Nafarroako Gobernuari

>> 3

Gaur Ez taldea
disko
euskaltzale
batean

>> 14



Pasa den udazkenean Arbizuko Utzugane Garapen Zentroan elkartzen ziren SNEINN programako parte-hartzaileak. ARTXIBOA

Jarrera ekintzailea duten langabeak behar dira

>> 7



Urdiainek San
Pedro festak
hartuko ditu
bihartik

>> 2



Irakurri, Gozatu
eta Oparitu,
sariak banatuz
agur

>> 15

ZURE NEGOZIOA
GIDAN
IRAGARTZEKO
DEITU

948 56 21 07
618 88 26 27



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA

%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Unai

Zorionak txiki eta ondo pasa! Muxu asko Amabixuren partez!



Unai

ZORIONAK zure seigarren urtebetetzean!! Ongi pasa zure egun desiatuenean. Muxu asko Etxarri ta Arbizuko familiaren partetik.



Irune Karasatorre Sureda

Zorionak Irune! 9 urte San Ferminetako txupinazorekin beteko dituzu! Per molts anys a l'amiga dels animals! Muxu pila, etxekoek.



Nora Razkin Piñas

ZORIONAK zure hirugarren urtebetetzean, bereziki, Leire eta Alainen partez.



Ibon Muñoz Goikoetxea

Uztailaren 6an txupinazoa botatzera etorri zinen eta oraindik, hemen gaude zurekin parrandan. ZORIONAK pottoko!

Bazkideek deskontua

Bakarra:

3,50€

Bikoitza:

7€

garilak

4-10

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Mendi irteerak

Bidarral-Erratzu-Bidarral. Garilaren 5ean eta 6an, larunbatean eta igandean, 6:00etan. **Etxarriko Larrañeta mendi taldea.**

Bestelakoak

I. auto klasikoaren topaketa. Garilaren 5ean, larunbatean, 10:00etatik 14:00etara Altsasuko Zumalakarregi plazan.



Deialdiak

Zorri azoka, merkatu soziala. Garilaren 4an, ostiralean, 17:00etatik

21:00etara Etxarri Aranazko estalopean.

Hipotekek kaltetutakoaren Plataforma. Garilaren 4an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxeko lehen solairuko 1. gelan, bilera.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 4an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Herri ostiralak. Garilaren 4an,

ostiralean, 20:00etan Altsasuko Foru plazan mobilizazioa, gero afaria. **Ospa!**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garilaren 6an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Garilaren 7an, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

FESTAK

Urdiaín:

San Pedruak

>> Garilak 5, lanbata

12:00etan Etxajua eta festen hasiera TXORONGO txarangak alaitua.
13:00etatik 14:00etara Trikipoteoa (Urdiaingo gazteek antolatua).
13:00etatik 15:00etara Kuadrillen arteko kalderete txapelketa (Suak udalak jarriko ditu).
17:00etan Kuadrillen arteko herri kirol txapelketa (UGA-k antolatuta).
17:00etan Haur kategoriako bizikleta lasterketa eta gynkana.
20:00etatik 22:00etara TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia.
22:00etan Euskal presoan aldeko herri afaria.
1:00etatik 4:00etara TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia.

>> Garilak 6, domeka

10:30ean Ardo banaketa San Pedroko hariztian.
12:30ean Meza nagusia San Pedroko basilizan.
14:30ean Bazkaria San Pedroko zelaietan.
17:00etan Zortzikoa.
19:00etan Salbea eta herrirako itzulera.
20:00etatik 21:00etara Astoaren Urrezko Kaka lehiaketa futbol zelaietan, trikitaliarekin alaituta (UGA-k antolatuta).

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia OROTS taldearekin.
22:00etan Zezensuzkoa.
00:30etik 2:30era Dantzaldia OROTS taldearekin.

>> Garilak 7, astelehena.

Jubilatuaren eguna
10:00etan Gosaria alondegian, Tintinurri elkartearen eskutik.
12:00etan Meza.
13:00etatik 14:00etara ALTSASUKO ABESBATZAREN emanaldia.
14:30ean Jubilatuen bazkaria frontoian. Ondoren BIXENTE SETOAINekin dantzaldia.
15:00etan Gizonen bazkaria, MALABABA txarangak alaitua.
18:00etan Ikuskizuna LA TIRILI antzerki taldearekin.
20:00etatik 22:00etara eta 00:00etatik 3:00etara JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia.

>> Garilak 8, asteartia

10:00etan Gosaria alondegian, gizonen eskainia.
12:00etan Herriko dantzari txikiak.
13:00etan SAKANAKO TRIKITALARIAK plazan.
14:30ean Emakumeen bazkaria,



SAKARANGA txarangak girotua.
17:30ean Talo tailerra plazan.
20:00etatik 22:00etara eta 00:30etik 3:30era Dantzaldia GAUBELA taldearekin.
>> Garilak 9, asteazkena
10:00etan Gosaria alondegian, Aitziber elkartearen eskutik.
12:30ean Aizkolariak eta harrijasotzaileak plazan.
14:30ean Herri bazkaria.
17:30ean Etxez etxe IRUNBERRIKO txarangak alaitua.

16:30etik 19:30era Jolas parkea, joko elektronikoak, gurasoendako eta haurrendako motorrak...
20:00etatik 22:00etara DRINDOTS taldearekin emanaldia.
22:00etan Zezensuzkoa.
23:00etan Trikipoteoa plazatik hasita (UGA-k antolatuta).
00:30etik 3:30era DRINDOTS taldearekin dantzaldia.

*Oharra: Egunero, eguerdi eta iluntzean, ardoa banatuko da.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

beleixe ^{107.3 FM} *online*
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA
ASTEKO ERREPASOA:
albisteak, kirolak,
Batuta taldearen egitasmoak
eta Altsasuko auto klasikoaren topaketa

Esataria: Alfredo

SAKANA

.EUS nabigazioa hasi da

Larunbatz geroztik 92 aitzindari .EUS domeinuarekin dabilta sarean

Abenduaren 3ra arte, Euskararen Nazioarteko Eguna arte, 92 aitzindari horien .EUS domeinuzenak izanen dira horrela aktibatua egonen diren bakarrak. .EUS "abizena" Interneten zabalduko dutenak eta munduari adieraziko diotenak badela komunitate bat euskaraz ari dena eta euskal kultura jorratzen duena. Aitzindari zerrenda 9 enpresak, 23 erakunde publikok, 14 hedabide eta euskal kulturagintzako erakundeek osa-

tzen dute. Guztiek Puntu.Eus fundazioari diru-ekarpenak egin edo bestelako laguntza eman diote.

Puntu.Eus fundazioko buru Juan Mari Torraldaik azaldu duenez, "domeinuaren aitzindarien zerrenda, zerrenda oso anitza da, izaera, dimentsio eta jatorri ezberdineko entitateak biltzen dituelako". Aniztasun hori .EUS Domeinuaren izaera inklusiboaren isla zuzena dela uste du Torraldaik.

Aitzindarien artean daude euskarazko tokiko komunikabideak biltzen dituen www.tokikom.eus, herri ekimeneko hedabideen elkarte, www.hekimen.eus edota herrietako euskaltzaleak sareztzen dituen erakundea: [**PuntuEus**
Fundazioa](http://www.topa-</p>
</div>
<div data-bbox=)

www.domeinuak.eus
info@domeinuak.eus
665 770 945

gunea.eus.

Hurrengo faseak

Aitzindarien fasearen ondoren, Torraldaik abiarazte-aldia etorriko dela jakinarazi zuen. Bigarren fase hori irailaren 16an hasi eta azaroaren 18ra arte luzatuko da. Abiarazte-aldian mota guztietako erakunde publiko, elkarte eta enpresek euren domeinu-izenak



.EUS domeinuaren aurkezpena.

eskatu ahal izanen dituzte, lehen-tasunez, publiko orokorrera irerki aurretik. Denbora tarte horretan eskatzen diren domeinu-izen guztiak abenduaren 3an aktibatu-

ko dira, Euskararen Nazioarteko Egunean. Data horretan zabalduko da .EUS Domeinuaren Fase Irekia edo Orokorra, nahi duen guztiari zabalik izanen dena.

>> Altsasu



Udala eta euskaltzaleak elkarlanean ariko dira

EHEk udalarekin harremana euskaraz nahi duten hainbat altsasuarren eskaerak bideratu ditu. Iortian jarritako postontziaren bidez eskaerak jasotzen segituko dute

Udalak eta biok euskaraz dinamikaren barruan, Altsasuko Euskal Herriaren Euskaraz (EHE) eragileak hainbat herritarren eskaerak jaso eta udalarekin aurkeztu ditu. Eskera horietan altsasuarrek udalarekin harremana euskaraz nahi dutela adierazi diote udalari. EHEko kideak lehen eskaerak aurkeztu ondoren, udaleko euskara zinegotziarekin eta euskara teknikariarekin bilduz zirene eta euskaltzaleei jakin-

narazi zieten eskaerak betetzeko lanean ari direla udalean. Aldeek elkarlanean aritzeko prestutasuna azaldu zuten.

Sinadura eman duten altsasuarrekin ostiralean bildu ziren EHEko kideak eta orain arte emandako urratsen berri eman zieten. EHEko kideek Altsasuko euskaltzaleak kanpainarekin bat egitera animatu dituzte. Udalarekin harremana euskaraz nahi dutela dioen eskaera orria Iortia kultur gunean bete daiteke eta han dagoen postontzian sartzea nahiko da. Udalean aurkezteaz EHEko kideak arduratuko dira.

SAKANA

Euskararen Nafar Kontseiluak hedabideendako diru-laguntzak berreskuratzea proposatu du

Astelehenean egin zen Euskararen Nafar Kontseiluaren bilera. Nafarroako Euskaltzaleen Topaguneak komunikabideen inguruan planteatutako proposamena aztertu zen. Aipatu bileran Euskararen Nafar Kontseiluak erabaki zuen Nafarroako Gobernuari hedabideei euskara erabiltezagatik ematen zitzaizkien diru-laguntzak berreskura daitezkeen eskatzea. Gainera, kontseilu-kideek euskarazko hedabideen lanarekiko aitorpena behar adinako finantzaketa egonkorrean mami dadila eskatu zuten. Aldeko 13 boz jaso zituen proposamenak eta administrazioko 5 ordezkariak abstenitu ziren.

Bileran, Topagunearen ordezkari gisa Bierrik fundazioko Ainhoa Urretagoiena Arruabarrenak parte hartu zuen. Nafarroako Gobernuak 2012. urtean hedabide-



Nafarroako euskalgintzako kideak aurreko agerraldi batean. ARTXIBOA

endako diru-laguntzak aurrekontutik ezabatu zituela gogora ekarri zuen. Euskararen Legea betetzea eta heldu den urteko aurrekontuan partida bat sartzea eskatu zuen. Urretagoienak diru-laguntza deialdian euskara hutsez aritzen diren komunikabideei lehen-

tasuna emateko eskatu zuen, haien biziraupena ziurtatzeko eta etorkizun duina bermatzeko.

Asteleheneko bileran ere hiru batzorde osatzea erabaki zen: terminologia eta toponimia, soziolinguistika eta, azkenik, helduen euskalduntzearen batzordea.

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak
SALMENTA

Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea

Unamuno

Ondarria industrialdea z/g
ALTSASU
948 562 829
Faxa: 948 563 002
unamuno@plensosunamuno.com

HARATEGIA
Lopez de
Epikoa
CARNICERIA

Ondo pasa festetan!

948 562 157
Elizapzi 12 · Urdiain

GYRE-TOKI
Mareo, Gure toki taberna

Ongi pasa festetan!

Bokatak
Kaxuelitak
Plater konbinatuak

948 469 200
plazalde 2 urdiain

Kaluxa
TABERNA • JATETXEA

Eguneko Menua
Enkarguzko bazkari eta afariak
Asteburuko Menu berezia
Plater konbinatuak

948 46 92 91
Kaluxa kalea, 3. • Urdiain



Eduardo Galan

astekoa

Pin, pan, pun, Felipe VI.-a koroadun!!!

Udaberriaren agurrarekin, Juan Carlos I de Borbon, Espainiako errege ohia, joan zaigu abdikatu ondoren. Ez dakigu Afrikako Serenguetti edota Massai Mara parkeetara elefanteak ehizatzea edo bere "Bribon" belaontzian Alemaniako Corinna zu Sayn-Wittgenstein Printzesarekin Niza edo Monakoko Kasinoetara gure dirua 200 euroko ardo botiletan eta jokoan gastatzera. Halaber, berrez,

ponpa eta glamourrez betetako zeremoniarekin batera jarri dute bere semea, Felipe VI.a, nazioaren aurrean, estatu buru bezala, koroa bere buruan jarriz. Hau bai, serioago eta oso prestatua dator kion egin beharrei aurre egiteko. Edo hori diote jakintsuek.

Diputatuen kongresuan, aurreneko hauteskundeetan gehiengoan izan zuten bi alderdiek. Europako hauteskundeetako boto inten-

tzioaren aldaketak nabaritu ondoren, tramite legegile guztiak zitu bizian eman dituzte azken urteko erregimen monarkikoa mantendu dadin, nola ez, nabarmendutako boto aldaketak erregimen monarkikoa arriskuan jarri baitezake. Gogoratu behar, ezarritako monarkia hau, monarkia parlamentarioa dela, zein bere xedearekin, hasiera eta bukaera parlamentuan duelarik.

Azkenaldiko ezkeriar alderdi politiko berrien agertze arrakatsuak eta betiko bi alderdi botereetsuen jaitsiera geldiezinak aldaketa mordoak ekarri dezake, eta horietako bat, monarkiaren bukaera izan daiteke. Europar hauteskundeak aurreratu diguna zera da, hurrengo Espainiar estatutaren hauteskundeetan erraz gerta daitekeela alderdi bi horien artean gehienezko botoa ez iza-

tea eta gertatu daitezken aldaketa legegileei aurre egiteko boto nahikorik lortu ezean, errepublika parlamentarioa ezartzea.

Zorionak monarkikoei, azken bi astetan kongresuak pin, pan, pun Felipe VI.a koroadun bihurtu dute, baina gauzak aldatu daitezke. Ez ahaztu. Ah, eta Gora San Fermin!!!

Kexak, iritzia, iradokizunak: dudugalan@hotmail.com

barrutik kanpora Itzalpetik

Udako solstizioa iritsi zaigu eta horren lekuko izan dira gure herrietan izan ditugun ospakizunak. Su inguruan salto eta algara ibilgar urteko sasoi berria ospatuz. Horrekin batera, asko eta asko gure oporraldian pentsatzen hasiak gara, non pasako ditugun oporrak, nora joango garen, zenbat kilometro egingo ditugun...

Baina, zoritxarrez bidaiak beti ez dira aisialdirako izaten, askotan ezin dugu erabaki zer egin nahi dugun edo nora joan nahi dugun. Ongi dakigu gutako askok; urte osoan zehar ere milaka kilometro egin behar izaten ditugu

gure senide eta lagunak espainiar eta frantziar estatuko kartzeletan bisitatzeko. Gutako askok ere, oporrak horren arabera moldatu behar izaten ditugu eta maite ditugun horiek aurkitzen diren lekuaren arabera egin behar izaten dugu bidaia.

Hilabete honetako berriei erreparatuta ere, dispersioak dituen ondorioak direla eta, berri larriak zabaldu behar gaude: hilabete honetan, espetxeetara bidean, bi Euskal Preso Politikoren senitartekoek auto istripuak izan dituzte errepideetan. Istripu hauekin, urte honetan jadanik

bost izan dira kartzeletako dispersioak eragin dituen ordainak. Horrelako gertakariak agerian uzten dute, berriro ere, sakanaketak senide eta lagunengan eragiten duen sufrimendua.

Beste aldetik, gaixorik ditugun Euskal Preso Politikoen inguruan ere berri txarrak eman behar gaude. Batetik, Ventura Tome tafallarrak hirurogei urterekin bi minbizi pasa ditu urte bakar batean. Murtzia I-eko espetxean dispersatuta dago, etxetik 700 kilometrotara. Iritsi zaizkigun azken berrien arabera, erradioterapia eskuburdine-

kin eman diote, horrek dakartzan arriskuekin.

Ibon Iparragirre ondarrutarraren egoera ere oso kezagarria da. 2011-ko urriaz geroztik espetxealdia bere etxean ari zen betetzen, segurtasun neurri zorrotzekin. Martxoan atxilotu zuten berriz eta Basauriko espetxera eraman. Handik Navalcarnero urrunduta zuten apirilean eta okerrera egin du bere egoerak. Ihesa C fasean dauka. Horrek maila kognitiboan eragiten dio. Horrelako egoeran egonda, espetxean erasoak jasaten ditu eta bakartu egin dute.

Egoera oso larrian dituzte gure presoak. Egoera honen aurrean kalera atera behar gaude, denon indarra beharrezkoa da. Gure herrietako jaietan ere borroka dezagun maite ditugun horien alde! Etxean eta aske nahi ditugulako!



Etxerat

hara zer dien

Antsietateari buruz

Denok sentitu dugu gure bizitzako momenturen batean antsietatea izenez ezagutzen dugun ondoreza sentazio hori: gure bizitzan aldaketa handi bat eman denean, egoera berri batera egokitu behar dugunean, azterketa baten aurretik, laneko elkarriketa batean...

Antsietatearen ondorioak gorputzean sentitzen ditugu (tentsio muskularra, kontzentratzeko zailtasunak, lo egin ezina,

botagura, zorabioak, arnasketan zailtasunak...) baita portaeran eta maila psikologikoan ere (kontzentratzeko zailtasunak, geldi egoteko zailtasunak, suminkortasuna, beldur handia, ihes egiteko gogo, kontrola galtzearen beldurra...).

Antsietatearekin erlazionaturik kontzeptuez berdinak daude, oinarrikoenak beldurra eta estresa dira. Beldurra sentitzea, berez, ez

litzateke negatiboa izango. Arrisku baten aurrean gorputzak ematen duen erantzuna da. Gure gorputzak mezu bat bidaltzen digu, arriskuen aurrean arreta jar dezagun: gure burua babestearekin erlazionaturik dago.

Baina antsietatearekin, momentu oro arrisku baten aurrean egongo bagina bezala sentitzen gara. Ondoreza handia sentitzeaz gain, honek gure osasun fisiko-

an ere eragina du. Gure organismoa sufritzen hasten da, hau ahulagoa bihurtuz.

Hau guztia, sufriarazten dugun sintoma bat da. Beraz, gutaz arduratzea eta honen atzetik dagoenari aurre egitea gure esku dago. Gure bizitzan gertatzen ari zaigunari arreta jartzea ezinbestekoa da: zer nolako bizimodua, harremanak... ditudan, nire buruarekiko exijentziak, pentsa-

menduak, sinismenak... nolakoak diren eta nondik datozen, zeintzuk diren nire benetako mugak, zer ari naizen saihesten nire bizitzan (bai nire harremanetan, baita nire nortasunari dagozkion alderdi ezberdinetan ere). Beraz, begirada barrurantz eraman eta hor gertatzen ari denari arreta jartzea, lehenengo pausoa ematea izango litzateke.

Narrea Iraurgi

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Larraitz

Amadoz Lazkano eta Eñaut Agirrebengoa
ZUZENTZAILEA: Garazi Barandalla Kanpos
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburuordetza

PABILIOI BATEAN 405 MARIHUANA LANTZAK ATZEMAN DITU FORUZAINGOAK: Garagarrilaren 19an Foruzaingoa 23 urteko arbuzar bat atxilotu zuen, osasun pu-

blikoaren kontrako delitua eta argindar kontsumoan 5.000 euro inguruko balioa duen iruzurra egitea egotzi zioten. Saltzeko prest zegoen marihuana opatu zuten.

sakanerria >>

SAKANA

Nafarroako Hondakinen Partzuergoak tratamendu tasaren erreforma aztertuko du

Kutsatzen duenak ordaintzen du irizpidean oinarrituta, Mank-ek bi urte egin ditu aldaketa eskatzen.

Materia organikoaren gaikako bilketan ahalegin berezia egiten duten erakundeak daude Nafarroan, horien artean Sakanako Mankomunitatea. Nafarroako Hondakinen Partzuergoak ahalegin hori nola saritu aztertzeko lan batzordea sortuko du. Partzuergoak garagarrilaren 19an hartu zuen erabaki hori eta Mank-eko buru Aitor Karasatorre Muguruzak "pozik" hartu zuen. "Kutsatzen duenak ordaindu dezala edo gaika banatzen ez duenak gehiago ordaindu dezala irizpideak defendatuko ditugu partzuergoan", azaldu du Karasatorrek.

Sortutako hondakin kopurua, gaikako bilketa maila edo tratamendurako partzuergoari emandako tona kopurua moduko irizpideak kontuan izan gabe, Nafarroako Hondakinen Partzuergoak orain arte tasa bakarrik kobratzen die herrialdeko mankomunitateei. Karasatorrek nabarmendu du bi urte daramatela tasa horren aldaketa eskatzen: "tasa bakarrik



Mank-eko langileak Uharte Arakilen hondakinak jasotzen.

ez du sustatzen herritarrak hondakinen banaketan bustitzea eta, gainera, hondakinak nahasita ematea bultzatzen du". Horregatik, partzuergoak Europako hondakinen araudiari buruzko printzipioa bere egitea eskatu du: kutsatzen duenak ordain dezala.

Ereduak

Mank-eko buruaren proposamena partzuergoak mankomunitateei bi irizpideren arabera kobratzea da: tratamendurako emandako hondakin tona kopuruaren eta frakzio bakoitzaren (errefusa, organikoa, tamaina handikoak...)

tratamenduaren kostuaren arabera. "Hala kobratuko balitz Europako irizpidea beteko litzateke eta gaikako bilketaren hobekuntzaren, hondakinen ekoizpena txikitzearen eta birziklatzearen aldeko ahaleginaren arabera sarituko litzateke", dio Karasatorrek.

580.000 euro

Diru hori ordaindu zion 2012an eta 2013an Mank-ek partzuergoari. Hala ere, 2013an Mank-ek 1.500 tona hondakin gutxiago (%22,62) eman zituen, atez atekoa eta sistema mistoa indarrean jarri zirelako. Hondakin bilketan ahalegina eginda ere tasabera ordaintzeagatik kexu da Mank.

Ibarreko erakunde ko presidentek azaldu duenez, 2004tik Katalunian isurien (gerora ere errausketa gainera) kanona indarrean dago eta jasotako diruen erdia gutxienez zati organikoaren tratamendura bideratzen da eta gaintzekoa hondakinen kudeaketa ekingizetara. Gipuzkoa eta Bizkaiko partzuergoek emandako tonen gainera tratamendu kostak kobratzen dizkiete toki erakundeek. Karasatorrek Sakanako herri batzuetan %80 birziklatzen dela eta sakandar horiek hondakinak banatzen ez dituzten pertsonen bezala ordaintzea ez dela bidezko azaldu du.



Langabezia %6,76 jaitsi zen Altsasuko enplegu bulegoan

Garagarzaroan 99 sakandar gutxiago zeuden izena emanda bulego horretan

Altsasuko enplegu bulegoan astelehenean izena emanda zeuden sakandarrak 1.365 ziren, aurreko hilean baino 99 gutxiago. Iruñeko Zabalguneko bulegoan izena emanda dauden irurtzundar eta arakildarren datua falta da, pasa den hileko ibarreko alangabetu kopurua izateko. Bestalde, aurre-

ko hilean Altsasuko bulegoan 538 kontratu sinatu ziren, haietatik soilik 24 izan ziren mugagabeak.

Hilabetea 47.107 langaberekin itxi da Nafarroan, aurreko hilean baino 2.049 pertsona gutxiago daude izena eman enplegu bulegoetan (%4,17). Pasa den urteko garagarzaroakaberarekin alderatuz gero 4.314 langabegutxiago dago (%8,39). Geroari dagokionez, 25.062 emakume daude langabezian (%3,25 behera)

eta 22.045 gizon (%5,19 behera).

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak, M^{re} Isabel Garcia Malok, urte-arteko datuari erreparatu dio: "bederatzi hilabete jarraian jaitsi da langabezia eta 2013 akaberan sumatutako joera baieztaizenduz". Zehaztu zuenez, jaitsiera "gazteen artean kontzentratzen da, 30 urtez azpikoaren artean langabezia %14,43 jaitsi da azken urtean".



Kisugilea aldamioan lanean.

ZERGATIK JARRI AIRBUMP® A EETAN?



CITROËN C4 CACTUS BERRIA AIRBUMP® BABESAREKIN



CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahigo du TOTAL KONTSUMO MISTOA (100KM/L) / CO2 EMISIOA (KM/G): CITROËN C4 CACTUS: 3,1 - 4,6/82 - 107

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. Citroën Kontzesionario Ofiziala. Iruñeko etorbidea z/g • ALTSASU • 948 562 261 / Akabarro industriagunea • IRURTZUN • 948 600 657

» Arakil/Irurtzun

Arakilgo Udala adierazpen askatasunaren eskubidearen alde

Eskubidea murrizteko helburua dituzten eta Guardia Zibilak jarri dituen 7.180 euroko balioko isunak salatu ditu

Irurtzango Udalak egin moduan, Arakilgo Udalak ere hainbat arakildarrek jasotako isunen kontra eta adierazpen askatasunaren aldeko mozioa onartu zuen. Guardia Zibilak, isunak, kontzentrazio eta jardura baketsuetan jarri zituela salatu eta halakoak Irurtzango Guardia Zibilaren jarrera normalizatu batekin saihestu zitezkeela nabarmendu du udalak bere erabakian.

Isunak pertsona berak jasotzeak dakarren jazarpena eta adierazpen askatasunari isun bidez jarri nahi zaion mugak eta zigorrak salatu ditu Arakilgo Udalak, adierazpen askatasun eskubidea errespetatzearen alde azalduz. Aipatutako isunak ken-



Isunen kontra protesta egiteko ostiralean 100 bat pertsona elkartu ziren Irurtzango Foru plazan. UTZITAKOIA

tzea eskatu du udalak. Azkenik, Carmen Alba Gobernu Ordezkariekin eta Irurtzango Guardia Zibilaren arduradunarekin bilera eskatuko da udalaren jarrera azaltzeko.

Data	Protestaren zergatia	Isunak	Kopurua
2012-05	Preso gaixoen eskubideen defentsan egindako kontzentrazioa	1	450
2013-08	Inasa desegitearen kontra eta lanpostuen defentsan manifestazioa	7	2.450
2014-02	Arkaitz Bellon presoaren heriotza salatze eta preso gaixoen giza eskubideen defentsan egindako protesta baketsu bat	7	3.150
Egun ezberdinak	Autopista Elektrikoaren proiektuaren aurka, AHT	Hainbat	1.130
Guztira:			7.180

SAKANA

Kontu Ganberak parlamentuan berretsi du Mank-en kontuak saneatuta daudela

Hainbat alderdik zabalik dagoen auzi batek ibarreko erakundearen kontuan izan dezakeen eraginagatik kezka azaldu dute

Pasa den asteko asteartean, eta PPK hala eskatuta, Nafarroako Kontu Ganberako ordezkariak Nafarroako Parlamentuko Toki Administrazio batzordean izan ziren Sakanako Mankomunitatearen 2012ko fiskalizazio txostena azaltzeko. Kontu Ganberako presidente Helio Robledak azaldu zuenez, Mank-en "adierazle nagusiek egoera saneatuan dagoela erakusten du. Ohiko gastuak ohiko diru-sarrerekin estaltzen dira eta erakundeak zorpetzeko gaitasuna du". Robledak nabarmendu zuen Mank-ek plan estrategikoa izatea ona dela, "planifikaziorako kezka erakusten duelako".

Mank-en fiskalizazio txostena egin zuen Kontu Ganberako langile Asun Olaetxeak, ibarreko erakundearen opatu zuen aldeko jarrera azaldu zuen: "azterketa egin ahalazaltzen ziren akatsak, ahalzela momentuan zuzentzen zituzten. Eta egindako gomendioetako batzuk dagoeneko indarrean daude edo bideratuak". Azken horietako bat hutsik dauden dozena bat lanpostu betetzea da. Dagoeneko Mank-ek kontu-hartzailea aukeratzeko deialdia egin da. Edo Jai-Busa kontratatze deialdia zabaldu da.

Kezka iturria

Parlamentuko batzordean dauden alderdiek Mank-en kudeaketa onagatik "poztu" ziren. Hala ere, PPK, UPNk, PSNk ibarreko erakunde-



Parlamentuko batzorde batean Mank-eko aurrekontuez aritu ziren.

aren kontuetan eragina izan dezakeen helegite bat aipatu zuten. Urdalurko ur ematea Lakuntza eta Uharte Arakil artean luzatzeko lanak dira Nafarroako Administrazio Auzitegian daudenak. Obra-zuzendaritzaren arabera egindako lanek 644.551 euroko (BEZ barne) balioa dute, lanak egin zituen enpresarendako, berriz, 1.349.484 euro.

2012ko otsailaren 7an adjudikatu zuen Mank-ek 1.021.048 eurotan (BEZ kanpo). Lanak hasi eta hiru egunera, ordea, gelditu egin ziren, sei hilabete eta erdiz, desjabetze bidean zeuden ondasunen jabeek ez baitzuten pasatzeko baimenik eman. 2012ko irailaren 1ean hasi ziren berrituz. Obra-lanak 2013an amaitu ziren eta kitapena egiteko dago oraindik. Uharte Arakil eta Irañetako adarrak ez dira egin.

Batzar Orokorrak 13.324 euroko zigorra ezarri zion enpresa adjudikaziodunari, lanak 109 egun beranduago amaitzeagatik.

Obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiriaren arabera, eginiko obra lanen kostua 644.551 euro da (BEZ barne). Ziurtagirian "hobekuntzak" kontzeptuagatik sartuta zeuden 91.719 euro kendu dira. Izan ere, proiektuari egiten zaizkion hobekuntzek (teknikoak edo materialen kalitatean) ez dakarte prezio-igoerarik, baldintza-agirian jaso eta adjudikazio egiterakoan kontuan hartu baitziren. Esan bezala, enpresak 1.349.484 euro eskatzen ditu.

Aipatu obrak bi proiektu ditu. Batetik, Nafarroako Gobernuaren hiru urteko planean sartu zena eta, bestetik, lizitatutakoa. Obra lanen betetze-kostu osoa berdintsua da, baina badira aldake-

ta batzuk obra-unitateetan eta aurrekontu-sailetako aleko prezioetan. Mankomunitatea eta obra-zuzendaritza, batetik, eta enpresa kontrataduna, bestetik, ez dira ados jartzen prezioei eta egiaztatutako obra-unitateei dagokienez.

Enpresak ez zituen lehen hiru ziurtagiriak sinatu eta laugarrena eta azkena ados ez zegoela esanez sinatu zituen, zuzendu ondoren adjudikatutako prezio eta obra-unitateetara egokitzen baziren ere. Hasieran, Nafarroako Gobernuan aurkeztutako proiektuaren arabera egin zen egiaztapena.

Lanak ordaintzeko Mank-ek Nafarroako Gobernuaren 889.629 euroko diru-laguntza jaso zuen, proiektu aldaketa ikusita 294.985 euroan murriztu zuena. Horretaz aparte, Mank-ek 223.564 euroko mailerua eskatu zuen.

MOTZEAN

Haurrak goiaingueruari aurkezteko epea zabalik

Ekitaldia garilaren 20an izanen da, 12:30ean, Aralarko santutegiko meza nagusiaren barruan

Aralarko Deun Mikel Goiaingueruaren Kofradiak 11. aldiz haurrak Aralarko goiaingueruari aurkeztu eta haren musua jasotzeko ekitaldia antolatu du. Gaur egungo elizaren araudiak umeak haien parroketan bataiatu behar direla dioenez, guraso askok santutegiarekiko duten lotura handia mantentzeko modua da haurren aurkezpena, "ospakizuna haur guztiei zuzenduta dago". Aurkezpenaren ondoren haur bakoi-tzak bere izena eta San Migelen lagun izendapena duen pergaminobat jasokodu. Pergamino horiek behar bezala prestatu ahal izateko alde zurretik izena ematea eskatu dute kofradiatik. Horretarako santutegian dauden txartela bete edo kofradiako buru Jose Mari Ustarrozi eman beharko zaio, garilaren 15a baino lehen.

Musika eskolarako bi kontratazio geldiarazi ditu gobernuak

Irurtzango Udalak, oposizio-lehiaketa bidez eta lan-kontratu finko-arekin, gitarra klasikoko eta zeharkako txirula irakasle bana kontratatu nahi zituen, "irakasleei lan segurtasuna emateko" Txiki Iriarte alkateak azaldu digunez. Eskolak, beraz, behin-behinean dauden irakasleek ematen jarraituko dute. Deialdia apirilaren 25ean argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak egindako errekerimendua aurkeztu zuen. Kontseilariak Espainiako Gobernuaren aurrekontu egonkortasun legea eta defizit publikoa murrizteko neurriak oinarri hartuta egin zuen Irurtzango Udalaren kontra, lanpostu finkorik ezin dela egin argudiatuz. Irurtzango Udalak gatazka juridikorik ez abiatzea eta errekerimendua onartzea erabaki du.

Anitz Eskisabel Barandiaran aske

Arbizu familia duen Anitz Eskisabel Barandiaran asteazkenean Topaseko espetxetik atera zen, zigorra bete ondoren. Ibon Fernandez Irañetari bere garaian atzemandako dokumentuetan oinarrituta, hainbat atxilotu egin zituzten Eskisabel eta beste 13 pertsona. Atxilotuak haiek guztiak Baltasar Garzon epaileak agindutako sarekada "prebentibo" barruan kokatu ziren. 2007ko ilbeltzaren 24 arte preso egon zen. 2010ean 6 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, ETArekin kolaboratu zuelakoan. 2010eko garilaren 5etik zegoen preso.

SAKANA

Jarrera ekintzailea duten langabetuak behar dira

Mondragon Team Academy eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua SNEINN programa berriro eskaintzea aztertzen ari dira. Langabetuen ideiak lan aukera bihurtzen ikasten da SNEINNen

Lan eskaintza etxeko atera joka noiz iritsiko zain dauden pertsonak ez dute balio programa horretan parte hartzeko. Langabezian egonda ere, mentalitate pasibotik aktibora pasatzeko nahia eta gogoia duten sakandarrak nahi dituzte SNEINN programarako. Ekintzailetasuna sustatzeko eta lan aukera berriak sortzen ikasteko programa da. Eginez ikasiz metodologia erabiliz, langabetuen artean mentalitate aldaketa bat sortzea helburu du, jarrera proaktibo eta ekintzaile bat har dezaten. Programa martxan jartzeko halako



SNEINN programan parte hartu zuen lan taldearen bilera bat.

eskaintzan interesa duten sakandarririk baden jakin nahi dute antolatzaileek.

Pasa den udazkenean eskaini

zen estreinakoz SNEINN programa Sakanan. Hiru informazio saiotara joandako 29 sakandarren artean 15 aukeratu zituzten, Batuta tal-

dea osatu zutenak. Haiek lau hilabetez, talde lanean, eginez ikasi metodologiaren bitartez euren ideiak aurrera eramateko aukerak

Informazio gehiago

sneinnsakana@gmail.com edo 685 759 056.

eta moduak landu zituzten eta, horrela, lan aukera berriak sortzen ikasi zuten. Prozesu horretan guztian Mondragon Team Academyko aholkularien orientazioa jaso zuten.

Mondragon Team Academy, Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateko Ekintzailetasun Unitatea eta MIK Ikerkuntza eta Kudeaketa zentroa, eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuak (NEZ) sustatzen dute programa hori. NEZek Sakana aukeratu zuen programaren esperientzia pilotu gisa eta ordutik herrialdeko beste eskualde batzuetara zabaldu du.

Olatzagutia

Euskal kazetaritzaren baratza

Udan Euskarazko haurrak erreportari bihurtu dira eta herriari buruzko lanak egiten ari dira

Kazetari edo erreportari moduan bigarren astea egiten dute Udan Euskaraz programan parte hartzen ari diren 87 haurrak. Herriari buruzko ikerketak egiten ari dira, olatziarrak elkarrizketatzen ari dira eta bideo bat egiteko asmoa dute, besteak beste.

Euskarazko aisialdi programan

parte hartzen ari direnak 5 eta 12 urte bitarteko olatziarrak dira. Zazpi taldetan banatuta ari dira guztiak, astegunetan 10:00etatik 13:00etara. Ludotekan dute egunero hitzordua eta behin han elkartu ondoren, herrian barna dabilta guztiak. Eguraldiak laguntzen ez duenean, frontoian, eskoletako frontoian, kiroldegian, gimnasioan eta ludotekan bertan hartzen dute atarpea. San Joan egunean hasi eta hila-

ren 18ra arte luzatuko da Udan Euskaraz programa Olatzagutian.

Olatzagutiko Udalak bederatzi begirale kontratatu ditu haurrendako euskarazko aisialdi programa aurrera eramateko. Haiek garagarriaren 18an hasi ziren programako edukiak prestatzen eta hilaren 21ean bukatuko dute, balorazioa eman eta gero. Begiraleen lanaldia 9:15ean hasten da eta 13:15ean despeditzen da.



Udan Euskaraz aisialdi programako parte-hartzaileak. UTZITAKOIA

SAKANA



Umeak haur eskolan. ARTXIBOIA

Haur-eskolek diru-laguntza osoa jasoko dute

Ostiralean Nafarroako Parlamentuak hori jasotzen duen legea onartu zuen

Hezkuntza Departamentuak udaberri hasieran jakinarazi zuen haur eskolendako hitzartua zuen diru-laguntzaren %30 ezuela ordainduko. Kaltetutako udalen artean Uhar-te Arakil, Lakuntza, Arbizu eta Altsasuz euden. Egoera hori zuzentzeko ostiralean Nafarroako Parla-

mentuak UPNren kontrako botoekin 0 eta 3 urte bitarteko haur eskolendako legea onartu zuen.

Horren arabera, departamentuak kudeaketa gastuetarako hitzemandako diru-laguntza osorik ordaindu beharko du. Hurrengo urteetan diru-laguntza horiek ikasturtearen barruan ordaindu beharko direla ere jaso da legean.

ANDRA MARI IKASTOLA:
2014/15 ikasturterako
2 lan eskaintza:

2 urteko gelako laguntza irakaslea
Trantsizio gelako PTaren irakasle laguntzailea

Beharrezko tituluak:

- Lanbide Heziketako goi mailako graduak:
 - Haur hezkuntza
 - Gorputz eta kirol jarduerak
 - Gizarte integrazioa
 - EGA edo Hizkuntza eskolako C1-a
- Zailtasunak dituzten ikasleekin lan egiteko jarrera positiboa eta esperientzia baloratuko dira.

Curriculumak bidali
etxarri@ikastola.net-era
uztailaren 11ko 13:00 baino lehen.



BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Astehenetik ostiralera
**Eguneko menua
8,25€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

nereacnoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak
(Nafarroako Unibertsitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan

Estafeta 16, atzea · LAKUNTZA
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranatz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

SAKANA

Sustrai Erakuntza fundazioak harrobi eta meategiei buruzko txostena aurkeztu du

Oskiako eta Altsasuko harrobiei buruzko informazioa jaso du, Nafarroako beste zazpirekin batera

Otsailaren 8an Lekunberrin elkartu ziren Nafarroan aurreikusten diren edo egiten ari diren harrobi eta meategi proiektuen eraginpean dauden pertsona, erakunde eta kolektiboak (28 pertsona). Topaketa haren emaitza da Sustrai Erakuntza fundazioak pasa den hilaren hasieran aurkeztu zuen Nafarroako harrobi eta meategi batzuen proiektuari buruzko txostena: Harrobi eta meategiak: gutxi batzuen aberastasuna, gehienon arazoa. Nafarroako meategien proiektu eta ustiapentara hurbilketa.

Topaketan, besteak beste, Olazagutiko kareharri harrobiaz hitz egin zen, baina txostenean bederatzi kasuren berri ematen da eta haietako bi Sakanan daude: Oskia eta Altsasuko. Harrobi eta meategi guztien fitxa osatu dute, aktoreak, gatazka, eraginak eta erantzunak ataletan banatuta. Dokumentua osatzeko, fundazioak akaberan halako egitasmoei aurre egiteko topaketan sortu ziren ideiak jaso zituen, baita helegiteei buruzko erreferentzia laburra ere.



Oskiaz

Canteras Alaiz taldeko Canteras Oskiak 1984tik 2004ra ustiatu zuela azaltzen da. 2010ean lehen goratze plana onartu zela eta hura

estaltitako ustiapen plana dela nabarmentzen du txostena. Harrobiak dituen eragin artean zerrendatu dituztenak dira: paisaia,

leherketak sortutako zarata eta hautsagatik molestiak, langileak 20tik 5era pasa direla eta onuradun ekonomikoak kontzejuak direla eta ez udalak.

Oskiari buruz txostenak dio lehen goratze plana ezin dela epaitegi-tangeldiarazi bide hori jorratu delako. "Gainera, Nafarroako Gobernuak kontzejuei plana gauzatzeko lurak desjabetu die". Izako eta Arakilgo Udalek, Nafarroako Gobernuak eta enpresak planaren jarraipen eta kontrol batzordea sortu dutela ere azaldu du txostenak.

Altsasukoaz

Ulaier dermian dagoen harrobia Lazaro Echeverria enpresak kudeatzen du (FCC taldekoa). Fundazioak azaldu duenez, Altsasuko harrobiak 40 urte darama martxan eta gaur egun enpresak lehen goratze proiektua aurkeztu du, "horrek beste 30 urtez ustiatzen segitzea utziko lioke". Enpresak bi proiektu aurkeztu ditu. Alde batetik, zaina sakonago ustiatzeko eta, bestetik, mendi lerroa etorkizunean ustiatuko lukeena. Enpresa berak Olaberrian eta Ziordian harrobi bana duela ere gaineratzen du txoste-



nak.

Eraginei dagokienez, fundazioak jasoduenek, Ulaierko harrobiaren jardunak inguruko baserriei eragintzen die, "paretak zartatu ditu eta

larreak hondatu ditu. Ahate ustiapen bat ere baldintzatu du". Horregatik, auzotarrek egitasmoari bost alegazio aurkeztu dizkiotela jakinarazi du fundazioak.

Arakil

Arakildarrak txangoan

Bihar 42 arakildarrek autobusa hartu eta Lapurdiko bidea hartuko dute. Arakilgo Udalak antolatutako txangoak goizetik, 9:30ean, Larrun mendira tren txikian igotzea aurreikusten du. Handik jaitsita, 11:30ean, Azkaine ezagutuko dute eta 13:00etan, bazkaltzera eseriko dira Hotel du Ponten. Udalak antolatutako irteera Sarako kobazuloetara eginen den bisita gidatuarekin despidituko da.

Altsasu



Auto klasikoak bisitan

Bihar, 10:00etatik 14:00etara, Altsasuko Zumalakarregi plazan

Altsasuko zaletu talde batek antolatuko du estreinakoz auto klasikoaren topaketa. 10:00etan elkartuko dituzte autoak Zumalakarregi plazan. Topaketako parte-hartzaileek auzatea izanen dute 11:30ean. 25 urte baino gehiago dituzten autoak 14:00ak arte izanen dira ikusgai. Hura despiditu ondoren, Urbasako kanpinerantz joko dute, 14:30ean bazkaria baitute. Informazio gehiago azken orriko elkarrizketan.



Sexu erasoaren kontra bat egin duten kazetariak. Eskubian, eserita, Huarte.

Kazetariak sexu erasoaren kontra

Iruñeko festak bertan dira eta haietan izaten diren eraso sexistei aurre egiteko kanpaina jarri du martxan Iruñeko Udalak. Kanpainak *eraso sexistarik gabeko jaien alde* leloa du eta kamisetak eta beste banatu dituzte, gizartea jabetu dadin festetan ere gizon-emakumeen arteko errespetua izan behar dela eta emakumeek

festetan indarkeriarik pairatu gabe parte hartu behar dutela.

San Ferminetarako udalak martxan jarri duen kanpaina horrekin bat egin dute Iruñean lan egiten duten hainbat hedabideetako kazetariak. Horien artean dago Maialen Huarte Arano ihabardarra, Euskalerrria Irratiko esataria eta Guai-xeko kolaboratzailea dena.



Isunen kontra, herri ostirala

Ospa! mugimendua "herriak jasaten dituen neurri gabeko isun politikoei aurre egiteko" deialdia egin du gaurko, hileko aurreneko ostiralero egiten duen moduan. Ospa! mugimendutik jakinarazi dutenez, azken hiru urteetan 21.000 euroko balioa duten isunak jaso dituzte altsasuarrek, "krisi garaian jarritako isun ekonomikoak, herri mobilizazioak zigortu, isilarazi eta desmobilizatzeko". Gaurko hiru garren deialdia da eta 20:00etarako plazan mobilizazioa deitu dute. Ondoren, isunak ordaintzeko dirua ateratzeko, 21:30ean herri afaria izanen da.

Arbizuko udala

JUBILATUEN TABERNA KUDEATZEKO IZEN EMATEA

Arbizuko udalak jakinarazten du:

Jubilatuena taberna kudeatu nahi duenak bere izena eman dezake udaletxean, 9:30etik 14:00etara uztailaren 14ra arte.

Baldintzak:

- Jendaurrean egongo diren pertsonak, euskarekin ezagutza izan behar dute.
- Eskaintza ekonomikoa aurkeztea.
- Kudeaketa plana aurkeztea.



ARBIZUKO UDALA

Arbizun, 2014ko uztailaren 1ean.

FRONTOKO TABERNA

948 469 138
ERKUDEN 4 · ALTSASU

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

SAKANA

Ibarreko erakusleihen erakusleiho: Sakanaklik

Ibarreko jarduera sozio-ekonomikoa eta kultur arlokoa dinamizatze asmoa du www.batuta.eu-k

Batuta taldeko kideek Birziklatze Laborategiarekin batera beste bi proiektu garatu dituzte: Sakanaklik web gunea eta hur olio ekoizpena. Aurrenekoan buru belarri aridira lanean Luis Diaz altsasuarra eta Felicia Climescu ihabardarra. Azaldu digutenez, web orriaren ideia SNEINN programako parte-hartzaileen arteko elkarriketetatik sortu zen.

Batutako bost kideak gogoz ari dira hiru proiektuak aurrera ateratzeko lanean, "horiek ongi garatu nahi dugu, orain ez dute dirurik ematen, baina etorkizunean ekarriko duela espero dugu". Elkarlanaren balioa berretsi dute, "bat bestearen kontra aritzea hobe da".

Web orriaz galdetuta, Climescu esan digunez, "kalera galdeztera joan ginen eta jendeak esan zigun, dendari batzuk tartean, Sakanako komertzioaren eskaintza bateratzeko eta Interneten erakusteko beharra sumatzen zutela. Jendeak esan zigun hor lan aukera bat zegoela. Horrela sortu da Sakanaklik web orria". www.batuta.eu orrira sartzen dena ibarreko eskaintzak edo Sakanan opatu daitezkeen merkataritza eskaintza jasokodu. "Sakanaklik, turismorako, saltokiendako eta zerbitzuendako sakanarrron erakusleihoa. Bai Sakanan bai Sakanatik kanpo ekoizleek, komertzioek eta industriak bere berri emateko modua da weba", azaldu digu Diazek.

Zergatia

Biek ere azaldu digute www.batuta.eu-ren helburua eskualdean pertsona eta diru mugimendua sustatu nahi dutela. "Asmoa da Sakanako komertzioaren eskaintza aurkeztea baina, batez ere, Sakanako sentipena batzea da asmoa. Ibarreko punta batean dagoena bestean zer dagoen, edo nortzuk garen ere ez dakiela dirudi. Irurtzungo batek Altsasun zer dagoen eta alderantziz", esan digu Climescuk.

Diazek gaineratu duenez, "gure ideia da jendeak Sakanan zer bait opatzeko beharra badu, sar dadila www.batuta.eu-n eta han jakinen du hemen eros dezakeen eta non. Hala ez du Iruñara joan beharrik izanen, jakinik hemen dagoela". Batutako kideek jendea web orrian sartzera eta iritzia ematera gonbidatu dute, "feedback-a, jaso nahi genuke".

Atalak

Web orrian sartuta, Diazek azaldu digunez, lehen lehenik argazki handi batekin egingen dugu topo. Hor txandakatuz agertzen dira Sakanaklik zerbitzua kontratatu duten komertzioen iragarkiak edota eskaintzak, laguntzaileak.

Baina www.batuta.eu web orrian pisu berezia duen atala Sakanako Gida Orokorra da. Ibarreko hainbat komertzioaren, industriako enpresek, "edozein jarduera ekonomiko" agertzen da gida horretan. 724 jarduera ditu gidak gaur egun eta jarduera bakoitzaren izena, harremaneta-



Luis Diaz eta Felicia Climescu web orriarekin buru belarri ari dira.

Hur-olio ekoizpena

"Gazta dugun moduan, etorkizunean beste produktu bat izan dezakegu Sakanan hur-olioa". Hala azaldu zuen Jabi Bergarak Beleixe Irratian (FM 107,3) Batutak esku artean duen hirugarren egitasmoa, hur-olioa ekoiztea, horrela bertako baliabide bati, hurritzei balioa emanez, "Sakanako ekoizpenarekin hur-olio ekoizle izan nahi dugu". Hur-olioa kosmetikan maila altu-

ko osagai gisa erabili daiteke. Onura askoditu, hidratatzailea eta ari na da. Elikagai gisa, gordinean erabilia, gourmet produktua da, urrek berezko usain eta zaporea baitute. Lehen probak eginak dituzte eta ekoizle izateko bidean osasun baimena bideratzen ari dira gaur egun. Udazkenerako zer bait egitea espero dute.

Hurritzak ekoizleei deia

Lakuntzan, Etxarri Aranatz, Iturmendin... hurritzak dituztenen

kontaktu batzuk baditugu, baina hur asko beharko ditugu. Baina gehiago izatea ez dago gaizki. Horregatik, Sakanarren parte hartzea garrantzitsua da. Norbaitek hurrak eman nahi badizkigu guk trukean olio emanen genioke, edo erosteko prest geundeko. Sakanan dauden hurritzen berri jasotzen ari dira pixkanaka eta ez dute baztertu soroak dituztenei horiek landatzera animatzea.

rako telefonoa eta helbidea agerida. Gida horretan agertzea doakoa da. "Sakanari zer daukagun erakutsi nahi diogu gida horretan. Batzutan saiatzen gara zer bait bilatzen eta ez dago modurik datuak zaharkituak daudelako, www.batuta.eu-n orain dena bil-

du dugu".

Festalarri izeneko atalean herrietako festen berri ematen dute Batutakoek. Gure Kultura izeneko atala lantzen ari dira gaur egun. Hor ibarreko kultur adierazpideen berri ematen dute Sakanaklik-koek. Web orria herrieta-

Harremanetarako

www.facebook.com/kliksakana
batuta.sakana@gmail.com 660 091 381 (Luis) eta 649 512 182 (Irantzu)

ko zerbitzuen berri ematen duen atalak eta berriei zuzendutako beste batek osatzen dute.



Eskerrak zuri!

eta zuri ere!



Etxarri Aranatz



Eskerrik asko Etxarri!

BABESLEAK:



LAGUNTZAILEAK:







GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com

948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)



Rodolfo Maiza de la Vega "Txinbo"

Beti gelditzen zaigu geure baitan
galdu ditugun adiskideen zerbait.
Maite ditugunak biziko dira
gu bizi garen bitartean.

Asun

Axio Flores Berastegi

Eskerrik asko guztiagatik.



Altsasuko peñak

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275

Emilia Catalan Yoldi andrea

Zure izaerarekin bizitza alaitu zenigun,
eta orain txori kantari bat bezain libre zarela,
goitik begiratu eta zaindu gaitzazu.

Zure familia

Emilia Catalan Yoldi Andrea

(Tere Armendariz Iñigo Aritza ikastolako langilearen ama)

Bihotz beroa, atsegina, su eder bat
bezalakoa neguko gau hotzean.



Iñigo Aritza ikastola

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarion: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu,
lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorian@guaixe.net

Higiezinak

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Bakaikuko Bakarrekoko elkartea festetan alokatuko da. Enkarterean hasierako prezioa 2.000 € lokal handia eta 1.000 € lokal txikia. Epearen bukaera uztailaren 11n gaueko 22:00etan. Interesatuak elkarteko postontzian utzi izena eta telefonoa.

LURSAILAK

SALGAI

Lur eremua saltzen dut. Bakaiku eta Iturmendi artean. Hots egin 662 16 72 12 telefonora.

Galdutakoak / Opatutakoak

OPATUTAKOAK

Giltza sorta opatuta. Altsasuko plazako kioskoan hilaren 21ean. Galdutako duenak Urtzi tabernara zuzendu.

Giltzak mando batekin. Opatuta Arbizuko festetan. Galdutako duenak Guaixera hots egin dezala 948 564275.

Ikastaroak

Haur eta helduendako igeriketa Irurtzunen. Hasierako maila (4 urtetik aurrera) eta hobekuntza ikastaroa. Uztailaren 3tik abuztuaren 7ra arte, astelehen, asteazken eta ostegunetan, goizez, Irurtzuno Itxesia igerilekuan. Prezioa: 54 euro tarifa orokorra eta 44 euro igerilekuetako bazkideek. Izen ematea ekainaren 23ra arte

Irurtzuno udaletxean (aurretik inskripzio orria Kultur Etxean eskatu eta ordainketa egin). Uztailaren 2an taldeak eta ordutegiak zehazteko mailaketa probak egingo dira, 12:00etan.

AES. "Enpresa ingelera II", Arbizun, 70 ordu, iraila-azaroa; "Ingelera elkarrizketa praktikak", Arbizun, 40 ordu, azaroa-abendua; ETEi aplikatutako trebatasun pertsonalak, Arbizun, ekaina "Planoen interpretazioa eta ordenagailuz lagundutako diseinua", Altsasu, 60 ordu, urria-abendua; "Adimen emozionala", Arbizun, 30 ordu, iraila-urria; Informazio gehiago: 948 46 83 07 eta formacion@aesakana.com

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu, Altsasu; Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizun, urria/azaroa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea <http://www.ifes.es>

Forem Navarra - CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

AIN-consulting ikastaroak. Informazio gehiago: 948 42 11 23 eta formacion.ain.es/

Lehiaketa

ETBko lehiaketarako lehiakideak. Hizkamilak lehiaketarako lehiakideak behar dira. Kultura oro-

korreko galderei erantzun beharko diete. Interesatuak euren datuak eta kontakturako modua hizkamizka@eitb.com e-postara bidali beharko dute.

Oharrek

Saharaztan boletoen zenbaki sarituak. 1213-2151-2385-0109-3101-1026-3100-3173-0964. Mila esker zuen laguntzagatik.

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpentak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo <http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu> bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpentak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurren erritmoak errespetatzen dituen eskola libre nahi baduzu. Deitu 661- 59 04

20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

Filosofia - trukea. Informazio gehiago larrezabaldk@inigoarritza.com

3MBk kontu korrontea zabaldu du.

Rural kutxa eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigososefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigososefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen.

JAIOTZAK

- Eider Agirre Martin, ekainaren 26an Olaztin.
- Aitor Gallego Guerrero, ekainaren 27an Altsasun.

HERIOTZAK

- Emilia Catalan Yoldi, ekainaren 29an Olaztin.
- Antonio Galparsoro Jauregi, ekainaren 29an Olaztin.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxa: 2054/0142 68 9152623199.

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasozen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

MENDI TXIRRINDULARITZA

SAKANDARRAK EXTREME BARDEETAN: 1.464 bikerrek parte hartu zuten Argueda-sen antolatutako 17. Extreme Bardeetan.

Patxi Cia izan zen garaile (7:08:14) eta hainbat sakandar animatu ziren proba go-gor honetan aritzera.

Pilota

San Migel Txapelketak 6 partida utziko ditu asteburuan Olaztin

Olaztiko Sutegi klubak eta San Migel elkarteak antolatutako 43. San Migel Pilota Txapelketaren barruan, asteburuan 6 pilota partida jokatu dira Olaztin.

Asteburuko partidak

Ostiralean, 21:00etan

2.maila. Lau t'erdian: Arana-Martinez / Galu-Biño

1.maila: Barban-Aritz / Iurgi-Javier

22 urtez azpikoa. Lau t'erdian: Elizalde-Goñi / Ansa-Santxez

Larunbatean, 18:00etan

2.maila. Lau t'erdian: Muñoa-Jokin / Mikel-Xabi

1.maila. Lau t'erdian: Xestero-Andoni / Etxague-Lopetegi

1.maila. Lau t'erdian: Joseba-Unai / Eduardo-Aritz

Txirrindularitza



Erbiti 5.a Espainiako Txapelketetako erlojupekoan

Hiriberrikoak Tourrean parte hartuko du

Asteburuan Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira eta Movistar Team izanda jaun eta jabe. 47 kilometroko erlojupekoan Alejandro Valverde izan zen azkarrena (58:00). Hiriberriko Imanol Erbiti bere taldekideak sekulako lana egin zuen eta 5.a sailkatu zen, 1:19ra. Bestalde, igandean jokatuak lasterketan Movistarreko Ion Izagirre izan zen txapel-duna (4:53:51). Imanol Erbiti 31.a sailkatu zen, 2:26ra. Sakantatik sortutako Rural Kutxak ere lan txukuna egin zuen. Igandeko lasterketan Luis Leon Sanchez laugarrena izan zen.

ERBITI TOURRERA

Imanol Erbiti Movistar taldeko talde gizon bikaina da, luxuzko gregarioa. Hiriberrikoak Tourrean parte hartuko du, Alejandro Valverde liderra laguntzen. Beraiekin batera, Gadret, Herrada, Intxausti, Ion Izagirre, Plaza, Rojas eta Visconti ariko dira bihar abiatuko den munduko txirrindularitza proba famatuenean.

Pilota



Ezkurdia Sanferminetako kaiolako finalista

Idoateren edo Olaizolaren kontra lehiatu beharko da San Fermin eguneko lau t'erdiko final handian

Joseba Ezkurdia sanferminetako lau t'erdiko Aspeko adarreko finalista da. Arbizuarra merezimendu osoz sailkatu da finalerako, Barriola irabaztetik zetorren Jaunarenari finalerdian 18-22 irabazi eta gero.

Idoateren Aimar edo kontra

Aimar Olaizolak eta Mikel Idoatek bihar jokatu dute torneoko beste finalerdia, Lodosan. Irabazleak

Ezkurdia du zain astelehen eguerdian jokatu den finalean. "Labriten egun ederrenetakoa izaten da sanferminetako lau t'erdiko finala eta ongi prestatu nahi dut, dudan guztia emateko eta egun horretan egoten den giro bikainaz disfrutatzeko. Olaizola edo Idoate, biak sekulako pilotariak dira eta biatako edozeinen kontra zaila izango dut. Dena den, Olaizolaren kontra aritzea borobila litzateke, miresten dudan pilotaria delako" adierazi du Ezkurdia. Zorte onena opa diogu.

Zabaleta eta Ezkurdia Binakakoan lanera

Igandean festa lehertuko da Iruñean eta horrekin batera sanferminetako pilota torneoak abiatuko dira. Binakakoan, Jose Javier Zabaletak buruz buruko finala galtzetik datorren Retegi Birekin osatuko du bikoa. Garilaren 8an, asteartean sartuko dira lehiari, Idoate eta Albisuren kontra, 22:15ean

abiatuko den jaialdian.

Aldiz, Joseba Ezkurdia garilaren 9an murgilduko da binakakoan. Barriola lagun, uztailaren 6an galtzen dutenen kontra ariko dira, Berasaluzen kontra. "Abelekin jokatzea gozamen da, azken urteetako atzelaririk onenetakoa delako. Asko erakutsi dit, eta oso pozik nago berarekin ariko naitelako" adierazi du Ezkurdia.

Piragua-Espeleologia

Piragua Etxarrin eta espeleologia Urbanan



Sakanako Mankomunitateak udan burutzeko bi jarduera berezi antolatutakoak dira: Etxarri Aranatzeko, ibaian, piraguismoa lantzeko aukera eta Urbanako Laminatutu (Olazti) eta Cristinos (Larraona) kobazuloetan espeleologian murgiltzea.

Piragua ikastaroa uztailaren 30ean, 31n, agorriaren 1ean, 2an eta 3an gauzatuko da, goizez. Eta espeleologia irteerak agorriaren 1ean, 2an eta 3an, arratsaldean. Irakasleak Sakana Experience-eko monitorea izango dira. Aipatu ikastaroak lagun edo familia artean egite-

ko proposak dira, baino bakarka ere eman daiteke izena. Piragua edo espeleologia artean aukeratu daiteke, edo bi proposamenetan izena eman. Ikastaroa euskaraz izango da, baino norbaitek ez badu ulertzen gaztelaniaz zuzenduko zaio.

Garilak 23

Izena emateko epea garilaren 23an despeditzen da, Mank-eko kirol zerbitzuan (948 464 866, kirolak@sakana-mank.com). Piragua ikastaroak 10 euroko kuota du eta espeleologia irteerak 5 eurokoa.

Frontenisa

Erraketa onenen bila



Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa erabakiko da gaur.

Finalerdien emaitzak:

2. maila:

Laura-Leire 30 / Jone-Amair 27
Ane-Uxue 30 / Leo-Maidier 18

1. maila:

Izar-Andrea 22 / Yanira-Saioa 30
Garazi-Lohitzune 22 / Edurne-Vanesa 30

Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketako finalak jokatu dira gaur, ostiralean, Etxarri Aranatzeko

Finalak

Gaur, ostiralean, 19:00etan, Etxarri Aranatzeko

2. maila

Ane-Uxue / Laura-Leire

1. maila

Edurne-Vanesa / Yanira-Saioa

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Etxarri Aranatzeko Gure Pilota klubarekin antolatutako Sakanako Emakumeen VII. Frontenis Txapelketa azken txanpan dago.

Aurreko ostiralean finalerdia jokatu eta gero, gaur, ostiralean, final handiak jokatu dira Etxarri Aranatzeko pilotalekuan. Final lehiatu eta ikusgarriak espero dira.

Txirrindularitza



Iosu Etxeberria, Bakarne Gonzalez eta Ailetz Lasa. BURUNDA T.T.

Sakandarrak Espainiako Txapelketetara

Iosu Etxeberria, Ailetz Lasa, Bakarne Gonzalez eta Maialen Aramendia hautatu dituzte Nafarroako selekzioarako. Iosu Jaka eta Asier Etxeberria erreserban daude

Garilaren 4tik 6ra bitartean eskola eta kadete mailako Espainiako Txirrindularitza Txapelketak jokatu dira Jaenen. Nafarroako Txirrindularitza Federazioak Sakanako hainbat txirrindulari hautatu ditu selekzioa osatzeko.

Zehazki, haurren mailako gizon-entzakoetan Iosu Etxeberria itur-

mendierra eta Ailetz Lasa zierdiarra daude hautatu artean, eta erreserba moduan Iosu Jaka etxarriarra. Haurren emakumeen mailan Bakarne Gonzalezaltsasuarra hautatu dute. Bestalde, kadeteetan Eguesibarreko Asier Etxeberria erreserban dago. Eta emakumezkoen kadeteetan Gipuzkoako CAF taldean dabilen Maialen Aramendia hautatu dute, hain zuzen, Nafarroako txapel-duna dena. Ea sakandarrek lan polita egiten duten.

Areto futbola

Koxka taberna txapeldun

IV. ARETO FUTBOLEKO KLUBEN ARTEKO ESTATUKO TXAPELKETA IRABAZI DUTE SAKANDARREK

Areto Futboleko Kluben Arteko Estatuko Txapelketa antolatzen du anfs.es elkarteak (Asociación Nacional Fútbol Sala). Bertan, areto futboleko talde amateurak lehiatzen dira. Koxka taberna aipatu txapelketan aritu da. Lehiatu eta irabazi, gainera.

Sakanako taldeak Araban parte hartu du. "Bertan ezagunak ditugu eta bertan lehiatu gara. Horrela, Miranda de Ebron jokatu genuen txapelketan sailkatzeko aurre txapelketa. Errioxako talde baten eta Miranda de Ebroko talde baten kontra aritu ginen eta irabazi genuen. Horrela, Estatuko Txapelketan aritzeko txartela lortu genuen" azaldu digu Koxka tabernako Jose Ramon Ramirez jokalaria.

IV. Kluben Arteko Estatuko Txapelketa asteburu honetan jokatu da, Guadalajaran. Gizonezkoetan 16 talde lehiatu ziren. Larunbatean sailkatutako taldeak multzotan banatuta aritu ziren lehiatzen, eta ligaxka jokatu zuten. "Lehen partidari 5-0 irabazi genion Santandereko talde bati. Bigarren 2-0 galdu genuen Guadalajarako taldearen kontra eta, hirugarren 5-3 irabazi genion Madrileko taldeari. Horrela, igandean final laur-



Jokalaria: Jose Retegi, Patxi Beraza, Jonathan Medina, Arkaitz Gasco, Jonathan Higuero, Luis Enrique Tejero "Kiko", Raul Mariscal, Jorge Mayordomo, David Terán eta Migel Barreiro (kapitaina). Guadalajaran parte hartu ezin izan zuten jokalaria: Jose Ramon Ramirez, David Mori, Otman El Ojdi eta Raul Garcia.

denak jokatzeko sailkatu ginen" gaineratu du Ramirezek.

Igandean Zaragozako Isotopos taldea izan zuten aurkari final laurdenetan. Bi taldeak parez pare ibiliziren, eta partida oso borrokatuan, azkenean Koxka tabernak 4-3 irabazi zion. "Partidarik gogorrena izan zen" azaldu du Migel Barrero kapitainak. Final erdietan Iruñeko Mecanizados Gerinda taldea

izan zuten aurkari. "Partida lehiatuan, 5-3 irabazi genien" dio Ramirezek. Eta final handian Valladolideko Panificadora La Gloria taldearen kontra aritzea tokatu zitzaizen sakandarrei. Azken unera arte oso lehia borrokatua izan zen, baina bukaeran 4-1 irabazi zuen Koxka tabernak, eta San Pedro eguna Guadalajarako kantxan ospatu zuten sakandarrak, kopa altxatuta.

Hurrengo erronka: Europa

Estatuko Txapelketa irabazi izan gatik, hurrengo urtean, maiatza aldera, Talde Amateurren Europako Txapelketa jokatzeko txartela lortu du Koxka tabernak. Oraindik ez dago erabakita non jokatu den aipatu txapelketa, baina litekeena da Errusian izatea, azkeneko irabazlea Moscu-ko Spartak izan zelako.

"Izugarri gustatuko litzaiguke Europako txapelketan aritzea, baina horretarako dirua behar da. Astebetean denok lanautzi behar genuke bertara joateko, bidaia eta egonaldia ordaindu... ea dirutza hori lortzerik dugun" adierazi digu Migel Barrerok. Dirua lortzeko ekimenak antolatu behar dituzte Koxka tabernakoek, "bestela ezingo dugu Europakoan parte hartu".

www.anfs.es

Txapelketako informazio guztia.

"Oso kontentu gaude egindakoarekin. Aipatu lehiaketan parte hartzeko 6.000 euroko aurrekontua zuten hainbat taldek. Gu, ordea, lau lagunez osatutako talde xumea gara, eta lortutakoa handia, ia sinestezina da" nabarmendu du Barrerok.

Triatloia

627 triatletek osatu zuten Onditz Oroitzuz

Sakana Triatloi taldeko 3 triatleta iritsi ziren helmugara

Igandean 29. Nazioarteko Atletiko San Sebastian Triatloia jokatu zen, Onditz Oroitzuz (1,5 km igerian, 4 km bizikletan eta 10 km korrikari). Probak parte-hartze handia izan zuen, 627 triatleta iritsi baitziren helmugara. Atzerritarak izan ziren nagusi, Jake Birthwhistle (1:55:28) eta Sarah-Anne Brault (2:15:07) buru zirela. Sakana Triatloi taldeko Juantxo Azurmendi 316.a izan zen (2:35:12), Alberto Martinez de Lagran 327.a (2:35:59) eta Iñaki Gallego 370.a (2:38:18).

Futbola

Urdiaingo Futbol Txapelketako 1. jardunaldiko emaitzak

Urdiaingo Gazte Asanbladak antolatutako Urdiaingo II. Futbol 7 Txapelketa asteburuan hasi zen.

1. jardunaldiko emaitzak:

Ostiralean
Zorton 5 / The Legends 2
Piperokki 2 / Piper Crew 1
Minavo de Kiev 3 / Iturmendi 4
Larunbatean
Karrotillo 9 / Altsasu 1
Bunker 5 / Stifler FC 3
Bainik Mendi 8 / Txunkai 1
Jarra y Pedal 0 / Drunken Soccer 4
Aston Billa / Kaymanak FK

Automobilismoa



Garikoitz Flores-Iñaki San Migel bigarrenak Etxaurin

6 eskuderia ezberdinetako 17 pilotu lehiatu ziren 1. Etxauriko Bailarako Rallysprintean. Pilotuek antolakuntzak prestatutako 6,8 km-ko eremu ikusgarria hirutan gainditu behar izan zuten eta Olaztiko Rallysprinta irabaztekin zetozen Mattin Villaresek eta Andoni Blasek (Clio Sport) irabazi zuten proba (11:00.800). Bigarrenak Garikoitz Flores lakuntzara eta Iñaki San Migel kopilotua izan ziren (Mitsubishi Lander Evo VI), 5 segundora (11:05.600). Gainontzeko sakandarrei dagokienez, Juan Jose Sanz-Javier Goikoetxea 5.ak izan ziren (Clio Sport, 11:30.900), Imanol Oskoz-Arkaitz Irigoien 9.ak (BMW 320i, 12:00.200) eta Andoni Lopez de Sabando-Ekaitz Jarones 10.ak (205 GTi, 12:02.700).



Imanol Arregi, Cachineroren eskuetatik saria jasotzerakoan. XOTA

Arregik entrenatzaile onenaren saria jaso du

"Magna Xota osatzen dugun guztiondako sari konpartitua da" adierazi zuen teknikariak

Areto Futboleko Entrenatzaileen Elkarteak Magna Xotako entrenatzaile Imanol Arregi izendatu du 2013-2014 denboraldiko lehen mailako entrenatzaile onena. Entrenatzaile irurtzundarrak larunbatean jaso zuen saria, Castellonen burututako ekitaldian, Areto Futboleko Entrenatzaileen Elkarteko presidente Paco Cachineroren eskuetatik.

Aurreko urtean ere Imanol Arregi entrenatzaile onenaren Ramon Cobo saria jaso zuen. Aurten jasotzeko bide onen jarraitzen duela eta gainontzeko entrenatzaileek bere lana oso estimu handian dutela erakusten du. Irurtzundarra

pozik zegoen saria jasotzerakoan. "Sari honek ilusio berezia ematen dit, honetaz guztiaz izugarri daiten entrenatzaileek ematen dutelako. Nire lanaren errekonozimendua izateaz aparte, taldeko gainontzeko teknikariei, jokalariei eta klubari berari ere aitortza egiten dio sariak. Magna Xota osatzen dugun guztiondako eta egunero gauzak hobe egiten saiatzen garenondako sari konpartitua da" azpimarratu zuen Arregik.

Arregik Xota uzteko hainbat eskaintza ditu, ekonomia aldetik Xotarena baino interesgarriagoak direnak, baina orain arte bere betiko klubean jarraitzeko apustua egin du irurtzundarrak. Taldeak elitean jarraitzearen arrazoi nagusienetako bat da Imanol. Zorionak!



Irurtzungo 12 orduko areto futbol txapelketa ate joka

Garilaren 26an jokatu da eta izena ematea zabalik dago

Futsalsakanak, hainbat babesle eta laguntzaileekin batera, 12 orduko Irurtzundun 2014 areto futbol txapelketa antolatu du garilaren 26rako. Txapelketa Atakondoa kiroldegian jokatu da eta bertan aritzera animatu dituzte Sakanako areto futbol zale guztiak.

Talde bakoitzak gehienez 12 kide izango ditu eta adinari dagokionez, 15 urtez goragoko jokalaria onartuko dira. Partidak 40 minutukoak izango dira. Izena ematen duten taldeak multzotan banatuko dira, ligaxka jokatu

www.futsalsakana.es

Izena emateko futsalsakanako weberra jo behar da, garilaren 23a baino lehen. Bertan dago txapelketari buruzko informazioa.

da eta talde onenak sailkatuko dira final laurdenetarako.

Sariak

Talde bakoitzak 75 euroko kuota ordaindu behar du. Sariak ederrik izango dira: txapeldunak 300 euro eta trofeoa, txapeldunordeak 150 euro eta trofeoa, hirugarrenak eta laugarrenak 75 euro eta txapelketako jokalarionenak 75 euro.



Futsalsakana txapelketako partida bat.

Mendi lasterketa

Saritu guztiak podiumean. Argazki gehiago www.guaixe.net-en eta Triku Trail taldeko Facebookean (TrikuTrail)

Razgak ziztu bizian osatu zuen I. Triku Traila

PROBAKO 300 DORTSALAK AGORTU ZIREN ETA HORIETATIK 265 KORRIKALARI IRITSI ZIREN HELMUGARA. 30 KORRIKALARI SAKANDARREK OSATU ZUTEN PROBA, JOXEJA MAIZA BURU ZELA

Aurreikuspen guztiak gaudituz, I. Triku Trail mendi lasterketarako prestatutako 300 dortsalak agortu egin ziren eta ikaragarriko parte-hartzearekin abiatu zen Triku Trail Kirol Taldeak hainbat babesle eta laguntzaileekin batera antolatutako mendi lasterketa ederra.

21 km eta 1.400 metroko desnibel positiboa zuen Etxarri Aranazko kanpinetik abiatu zen mendi lasterketak, inguruetako baso, harizti, pagadi eta trikuharrietatik pasatzen zena. Halaber, Nafarroako Mendi Lasterketen Txapelketarako baliagarria zen aipatu proba.

Razgaren lekzioa

Etxarri Aranazko Trikuharrien ibilbidea oinarri hartuta, ibilbide ederra prestatu zuten antolatzaileek. Kanpinetik aterata, Maitzegur eta Auntzetxe atzean utzi zituzten, eta Axioren putzutik barna Lizarrustira heldu ziren. Ondoren, Txaradigorri eta Hirumugeta igoondo-

ren, Otxentara jaitsi eta Fagamendi igozuten. Bertatik jaitsierari ekin eta Etxarriko kanpinetako helmugan despedituzen lasterketa jendetsua. Ismail Razga santurtziarrak ziztu bizian osatu zuen proba eta bakarrik iritsi zen helmugara (1:44:25), Abderrahim El Qayederi minutu bat eta 7 segundoko aldea aterata. Xabier Zarranz irunberriarrarekin batera hirurek osatu zuten podiuma (1:50:59). Razgak egindakoa nabarmenezkoa da, 6 kilometrotik aurrera belauna pixkat ukituta zuela aritu baitzen, eta ramadama beteaz ibilbide guztian eta ondoren ez zuelako ezer jan eta edan. Bestalde, emakumezkoetan Uxo Irigoien getariarra izan zen azkarrena (2:06:31), Izaskun Gerendiaini 7 minutu pasa aterata (2:13:36). Veronica Domingez izan zen hirugarrena (2:21:05).

Aiapatzeko da 30 sakandar iritsi zirela helmugara. Joxeja Maiza izan zen probako lehen sakandarra eta lehen etxarriarra (1:57:32). Maizak eta Beñat Kata-



Korrikalariei asko gustatu zitzaizen ibilbidea.

rain lakuntzarrak (1:58:34) bi ordu baino gutxiagotan osatu zuten Triku Traila, eta 2 ordutik gorako tartea behar izan zuten gainontzeko sakandarrek. Lehen emakume sakandarra Izaskun Beunza olaztiarra izan zen (2:32:19).

Bukaeran, korrikalariek kamiseta tekniko eta oroigarriak jaso

Sakandarrak I. Triku Trailan:

1.	Ismail Razga	1:44:25
14.	Joxeja Maiza	1:57:32
19.	Beñat Katarain	1:58:34
31.	Mikel Rubio	2:02:23
48.	Juanjo Goikoetxea	2:07:58
49.	Iñaki Martiaren	2:07:58
51.	Vicente Beloki	2:08:49
53.	Patxi Cano	2:09:01
60.	Ruben Moral	2:10:32
79.	Julen Paniagua	2:14:04
87.	Iker Flores	2:15:05
89.	Israel Arbizu	2:15:25
90.	Fernando Igoa	2:15:25
104.	Iñaki Alvaro	2:17:57
110.	Juan Mariñelarena	2:19:18
118.	Igor Artieda	2:20:55
127.	Patxi Dorronsoro	2:22:36
138.	Fran Araña	2:24:35
173.	Jose Leitza	2:31:05
177.	Izaskun Beunza	2:32:19
178.	Iraitz Senar	2:32:21
185.	Juanjo Mintegi	2:34:23
191.	Julen Arratibel	2:35:08
199.	Juan Daniel Lakuntza	2:37:08
205.	Mikel Beloki	2:39:13
219.	Erkuden San Martin	2:43:39
234.	Maria Goikoetxea	2:48:34
236.	Ibai Arrese	2:49:03
237.	Iñigo Iraurgi	2:49:03
239.	Iokin Loiarde	2:51:05
258.	Angel Gurmindio	3:04:21

zituzten eta irabazleek dirua, txapelak eta trofeoak. Eta auzate ederaz gozatu zuten guztiak. Korrikalariei asko gustatu zitzaizen ibilbidea eta antolakuntza ona. Antolatzaileek lan itzela egin zuten guztia prestatzeko, baina probaren erantzuna eta lasterketa ongi atera zela ikusita, oso pozik zeuden.

Txirrindularitza

Iñaki Garmendia azkarrena Migel Indurainen

Migel Indurain martxako ibilbide laburrean lehena izan zen

Igandean Migel Indurain martxa zikloturista jokatu zen Atarrabian. 1.200 txirrindularik parte hartu zuten, 800 ibilbide motzean (104 km) eta 400 ibilbide luzean (184 km). Tartean hainbat sakandar aritu ziren. Proba ez lehiakorra da, baina ibilbide motza egiten -tartean Pizzea, Mezkiriz eta Erro portuak gaudituz behar izan zituzten- Iñaki Garmendia olaztiarra izan zen azkarrena. 29 urteko gazteak aitortu zuenez, lehen zatian eroso ibili zen, baina ondoren eguraldia okertu zen eta okerrago aritu zen. Ibilbidean gurpil zolaketak ohi-koak izan ziren eta erorikoren bat edo beste ere izan zen. Bestalde, proba luzean Jose Angel Mitxelena lesakarra izan zen azkarrena.

Txirrindularitza

Bi lasterketa Urdiainen

Larunbatean, 17:00etan, eskolena eta asteartean, 17:00etan, juniorrena

Urdiaingofestek 2 txirrindularitza proba ekarriko dituzte. Larunbatean, 17:00etatik aurrera, eskolen mailako ginkana eta lasterketa jokatu dira, promesen, kimuen eta haurren mailan. Proba Burunda Txirrindularitza Klubak antolatatu du, Udalaren laguntzarekin. Jakina, Burunda eta Aralar Txirrindularitza Klubetako txirrindulariak ikusiko ditugu lanean.

Juniorren I. Urdiain Trofeoa, asteartean

Garilaren 8an, asteartean, I. Urdiain Trofeoa jokatuko dute juniorrek, 17:00etan. 95 km-ko etapaderra izango dute aurrez aurre. Txirrindulariek bitan igo beharko



dute Altamira. Horretaz aparte, Arabako mugaraino iritsiko dira eta Urdiaingo igerilekuetako eta

San Pedroko paraje zoragarrietarik barna ibiliko dira. Txirrindulari sakandarrak ez dira faltako.



Nonerabili

MARTIARENA GAZTANDEGIA

UHARTE ARAKIL
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN
Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.

JUGA TAILERRAK

ARBIZU
%10 eko deskontua mantenu piezetan, %5 eko deskontua gurpiletan.

AMAYA TABERNA

IRURTZUN
Menuarekin txupittoa edo kafea doan.

ENERITZ ILEAPAINDEGIA

ETXARRI ARANATZ
30 €ko gastuarekin, %10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU
%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisisa doan.

EKIN

ALTSASU
100 €ko erosketengatik 10 €ko deskontu balea (beherapenetan izan ezik).

IOSUNE MARAURI

ALTSASU
Bakarkako sesioetan %10eko deskontua

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU
15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



Gaur Ez bilduma euskaltzale batean

Iruñeko Euskalgintzaren Bilguneak argitaratutako diskoan 14 taldek parte hartzen dute

Garagarzaroaren 5etik salgai dago *Euskaraz dantatu, abestu, musika jo, gozatu nahidut* diskoa. Euskaraz bizitzeko nahiak elkartu zituen bai ideiarene sustatzaileak bai musikariak ere. Iruñeko kideak dituzten eta euskaraz kantatzen duten taldeak elkartu dira bilduman. Gaur Ez taldeko Julen Gilek esan duenez, "Nafarroan euskarari arnasa herritarren eta herri mugimenduaren ilusio, gogo eta ahaleginak eman dio eta ematen dio". Musikariek 14 kantu horiekin ekarpena egin nahi izan dute. Diskoaren salmentatik sortutako dirua Iruñeko euskalgintzaren dako izanen da.

Gaur Ez taldeak *Hurbil zaitez* kantuarekin parte hartu du bilduman. Taldeko baxu-jole irurtzundarrak, Xabier Unanuak esan digunez, Julek kantaria Alemaniara joan aurretik grabatutako kantua da bilduman sartu dutena. Kantuaz galdetuta, Unanuak: "euskarak berak lehen pertsonan kantatzen digu". Unanua bera izan da taldeen koordinazioaz arduratu dena eta diskoaren diseinua eta maketazioa egin dituen. Gaur ez taldeak izen bereko diskoa du kalean. Gainera, aurretik sexu indarkeria salatzeke *Eten* bilduman ere parte hartu du.



Nafarroako Antzoki Sareak sarrera salmentarako sistema izanen du

Irurtzun, Etxarri Aranaz, Altsasu eta Olatzagutiko kultur guneak daude tartean



Urte akaberarako erabilgarri izanen da Nafarroako Antzoki Sarearen (NAS) sarrera sistema komuna. Sarean, bestalde, eszenen katalogoa egin eta sareko espazioen programazioaren zabalkunderako tresnak prestatzen ari dira ere. Horiek guztietarako Nafarroako Gobernuaren 70.000 euroko diru-laguntza izanen du NAS-ek.

Foru administrazioarekin sareak duen elkarlana ez da soilik horretara mugatuko. NAS-ek bere jardunaren datuak emanen dizkio Kultura Departamentuari Nafarroako kultura jardueraren datu bilketan laguntzeko. Horretaz aparte, Nafarroako artista taldeen katalogoaren zabalkundean lagunduko du NAS-ek. Sarearen irudia orokortu eta estandarizatu da. Bestalde, kultur teknikarien artean programazioaren berri zabalduko da eta, horretarako, haiek dantza edo antzerki ferietara, kongresuetara, jardunaldieta, seminario eta jaialdieta joatea erraztuko da. Azkenik, sareko espazioen eta Nafarroako arte sektorearen arteko elkarlan formulak ikertuko dira.



Salaberriarendako, bigarrenenez, Etxepare Saria

Leire Salaberria andoaindarrak lehiaketara aurkeztutako *Hiltzaileak* albuma saritu du Etxepare Sariko epaimahaiak. Aurkeztutako 25 lanen artean aukeratu dute Salaberriarena: "autoreak beldurra eta egozina sentiarazteko gai den narrazioa eraiki du. Hitza eta irudia primeran uztartzen ditu eta intrigari eusten dio istorioa amaitu arte. Amaiera borobil bezain lasaigarri batez ixten du trama, irakurlea

Aurreko edizioetako saridunak:
www.etxeparesaria.net/saridunak.asp

jokoaren partaide bihurtuz". Egi-leak 5.000 euro jaso ditu eta albuma udazkenean Pamiela etxearekin argitaratuta ikusiko du.

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Nafarroako beste toki erakundeetakoekin batera antolatutako literatura lehiaketa da Etxepare Saria.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Uda iritsi da eta lana duenarentzat oporrak datoz

Krisi garaian bizi omen gara eta, hala ere, krisia sortu dutenak ongi baino hobeki bizi dira krisian. Gure diruarekin hondartzara joango dira edota nazioartera bidaiatuko dute. Ustelkeriak aberastu dituztenak ere oso pozik ibiliko dira udagaria leku batetik bestera, hegazkinak hartzen eta Taj Mahal eta beste leku miragarriak ezagutzen. Gu, berriz, lehengogarietako oporretara bueltatuko gara. Etxeango gozo-gozo edota soroan lanean.

Etxarriko Manolita Garzandia Urretarazu zena oso emakume atsegina zen, bihotz onekoa eta kultura handikoa. Behin galdetu nion ea bere garaian zer nolako oporrak zituzten, eta hauxe izan zen bere erantzuna: "gazte denboran goizean jaikitzen ginen, hartzen ginuen gosaria eta gure jolasak ziren edo soka batekin saltokan ibili edo bestela astoka, edo makila handi bat hartu eta, bueltaka, makila haren gainean saltatu, eta bakarren batean jotzen baldin bazobien, zer mina, hala ezta? Gero baranduan saltatzen ginen, edo tabakan, edo mutikoek boluekin txuloka, eta holako kontuak.

Alubitarra de bei. Alubita ere ibiltzen ginen. Lurrean txulo txiki bat egiten da eta han sartzen dira alubiak. Zenbat jokazale diren, hainbeste alubi, eta klaro, hobenean izaten dira alubiak denak diferentek, txuriak, gorriak, ñabarrak eta denetatik, eta harri batekin jo egiten da eta jotzen duen harrek zenbat alubi ateratzen dituen alubi horiek irabazten ditu, eta holaxen. Eta gero etxera faten ginen garaian, etxean hobenean lasterkan bazkaria ematera sorora, aitari eta amari, edo zein zen soroan hari bidali, hala ezta? pionari, edo senidea baldin bazen edo nola zan, hala.

Gaurko egunean asko kexatzen gara, baina askoz hobeki bizi gara. Gorrotina eta gauzok sekula izan da guai bezala, zengatik lehenotea ateratzen zinen atarira eta beti egun on, atsalde on, gabon, gero arte, ongi zaudie? zerbait esan behar, eta guai pasatzen zara bakarren baten ondotik eta txakurran ondotik pasatuko zinakeen bezala, ezta kasurik ere. Eta mina ematen dau. Penagarbia da hori.

Lehenotea, faten bazinen etxe batera mesedea eskatzera beleixeko dena eskaintzen zakion, baina gaurko egunean ez do eskaintzerik eta inoren gana faterik ere... Eta pena ematen dau.

Gauza horren beiten askoz hobeki bizi ginen, denekin alkarrekin, ongi eta hola, eta guai gorrotina besterik ez do leku guztietan eta penagarria da."

Uda iritsi da eta maite gaituztenekin egotea izango da guretzat oporrik hoberena. Ez du axola non. Etxean baino hobeki, inon. Kantak dioten bezala, ez gara aberats diruz, ezta ere oinetakoz, eta halere, pozik. Ez gara lapurrak eta lagunak badiugu. Atarian hamaka ipiniko dugu eta handik, Gin-tonika eskuan, egun on, atsalde on edota gabon esango diegu kaletik pasako diren gure adiskide guztiei.

Bertso Udalekua Irañetan

Bertsoa sustatuz bertsoarekin jolas egitea da helburua

Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak 17. aldiz antolatu ditu Bertso Udalekuak. Asteleheneetik igandera 12 eta 14 urte arteko 35 gaztetxo Irañetan izanen dira. Aurreko edizioetan bezala, bertso afaria eta Nerea Elustondo eta Aitzol Barandiaran bertsolariarekin jolasteko, hitz egiteko eta bertsoan aritzeko aukera izanen dute. Aurrekoetan bezala, gaztetxoek kantak sortuko dituzte egonaldi irintarrean. Egiteko horretan Oskar Estangaren laguntza izanen dute.

Udaleku guztietako kantuekin diskoa onduko dute. Euskal Herri guztiko gazteek parte hartzen dutenez, euskalki aniztasuna da udalekuen ezaugarrietako bat.

Enrike Zelaiari aitortza San Ferminetan



Napardi elkarte iruindarrak Enrike Zelaia akordeoilariari Gallico de Oro emanen dio. Napardik sari horrekin altsasuarrak Nafarroako folkloreaken alde, bereziki

musika arloan, eta Altsasuko inauterien berreskuratzearen alde egindako lana aitortu nahi du. Elkarteak heldu den ostegunean emanen du sari hori 29. aldiz, 14:30ean.

Sariak banatuz despeditu da irakurzaletasuna sustatzeko kanpaina

Liburu egunarekin hasi eta astelehenean bukatu zen Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina. Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko liburutegitik pasa, euskarazko liburua hartu eta irakurri eta gero hari buruzko iritzia fitxa batean ematen zutenek txartel bat jaso zuten. Harekin euskarazko liburu bat %25 merkeago erosteko aukera zuten. Liburuaren prezio erdian erosteko aukera zuten Aizpea, Irurtzungo euskaltzaleen topaguneko eta Berririk fundazioko kideek.

Kanpainan azken hilabeteetan parte hartu duten guztien artean liburuak erosteko 30 euroko lau txeke zozketatu dira eta sarituak honakoak izan dira: Anita Krebs



(Irurtzun), Alberto Izagirre (Arbizu), Eneida Carreño (Altsasu) eta Haizea San Roman (Altsasu). Aurreko hilean ere beste horrenbeste txeke zozketatu zituzten. Sakanako Mankomunitatearen

Euskara Zerbitzuaren babesarekin garatu da IGO kanpaina. Aizpea, Kima, Berririk, EHE eta AEK (Mintzakide) erakunde euskaltzaleak ere parte hartu dute ekimean.

Jubilatuen abesbatza etxean kantari



Larunbatean Altsasuko jubilate elkarteko abesbatzak ikasturte akaberako kontzertua eman zuen elkartearen egoitzan. Kantuezagunez osatutako erreperatorioa eskaini zuten, tartean ziren habanerak, fadoak, zortzikoak eta beste. 11 emakume eta 6 gizonek osatzen dute Altsasuko jubilate

elkarteko abesbatza. Asteartero eta ostiralero elkartzen dira, 19:00etatik 20:00etara. Lastailean hasi ziren eta orain bukatuko dute ikasturtea.

Lorenzo Gonzalez Urkizu zuzendariaren esanetara aritzen da abesbatza. Gonzalezek esan digunez, udan etenaldia egingen dute, nahiz eta emanaldiren bat hitzartua izan.

Zuzendariak jakinarazi digunez, edonon kantatzeko prest dago abesbatza. Musika zaletasuna partekatu nahi duenak elkartetik pasatzea besterik ez duela jakinarazi digu: "ateak irekiak daude, eta kantuan animatzen ez denak instrumenturen batekin aritu nahi badu, aukera hori ere badago".

sanferminak

Gozatu San Ferminetaz gurean!

Kendal
kafetegia-taberna
948 272 501
Ermitagaña kalea baxua Iruña



EL PILAR Taberna
Hamaiketakoak, bazkariak, afariak
Dastatu gure plantxa: gibela, giltzurruna, txapela, antxo...
948 17 67 26 • Asuncion plaza 2 • Donibane auzoa • Iruña

ETXEA DENAK
ETXEA!
SANFERMINAK 2014

5 LARUNBATA HERRIKO 19:30 MARIANITZ BLAI	8 ASTEARTEA ARRANO 00:00 ARKADA SOZIAL HERRIKO 21:00 GOITIBERA ELEKTROTARANGA 00:00 DJ JO TA TXO	10 OSTEGUNA ARRANO 00:00 TXIMELETA 02:00 DUB STEEP GAUA HERRIKO 19:00 TTEK ELEKTROTARANGA 00:00 DJ JO TA TXO	12 LARUNBATA HERRIKO 19:00 SKANDALUE ELEKTROTARANGA 00:00 DJ BULL
6 IGANDEA ARRANO 13:00 EUSKAL PRESO ETA IHESLARIAK EUSKAL HERRIRAI HERRIKO 15:00 DJ ELEPUNTO 00:00 DJ BENAT ALBERRO	9 ASTEAZKENA ARRANO 00:00 LUZIANO HERRIKO 19:00 3INDARROK ELEKTROTARANGA 00:30 LAS TEA PARTY	11 OSTIRALA ARRANO 00:00 LUZIANO HERRIKO 19:00 AKODAS BOZINE ELEKTROTARANGA 00:00 DJ BULL	13 IGANDEA ARRANO 00:00 ZE ESATEKI HERRIKO 00:00 DJ JO TA TXO
7 ASTELEHENA HERRIKO 19:00 MOTXAILA BAND ELEKTROTARANGA 00:00 DJ ELEPUNTO			14 ASTELEHENA ARRANO 00:00 F. BALENCIA

BAZKARIAK, AFARIAK, PINTXOAK, BOKATAK ETA JAI GIRO APARTA!!!
ERRERENBAK: SANFERMINAK BANO | LEHEN 948 222 828 | SANFERMINETAN 948 220 897

Herriko Taberna | PRESO | ARRANO ELKARTEA

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 92%	euria: 13%	euria: 81%	euria: 88%	euria: 30%	euria: 20%	euria: 10%	
Min: 13 Max: 20	Min: 13 Max: 25	Min: 13 Max: 20	Min: 11 Max: 16	Min: 10 Max: 18	Min: 11 Max: 18	Min: 10 Max: 23	

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	27.5	5.5	5.5
Altsasu	27	6.5	4.9
Aralar	19.3	5.4	6.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia >>

	ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
	5	12	19	26

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Garagarrileko bazkide **sarituak**

- 1.- **Izaskun Igeltz Lazkano**
(Lakuntza)
- 2.- **Joakina Zubiria Galartza**
(Altsasu)
- 3.- **Xabier Rubio Uribe**
(Altsasu)
- 4.- **Mikel Lanz Alegria**
(Lakuntza)

GARILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera, Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Armix sukaldean liburua.

2. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Armix sukaldean liburua.

3. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Lunatikoak liburua.

4. Lacturale esnea eta yogurtak, Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza, Artazako kanpinuean %10eko deskontu bala eta Lunatikoak liburua.

>> 11

galdera

Leire Lazkoz

Altsasuko auto klasikoan topaketako antolatzailea

Testua: Eñaut Agirrebengoa



Festetan elkartu, jendearekin gozatu

2014ko garilak 5etik 9a

Triptikoak, diptikoak, kartelak... mugikorrerako aplikazioak...

1.- Zergatik ekin zenioten egitasmo honi?
Beste toki batzuetan egiten diren kontzentrazioetara maiz joaten gara, eta asko gustatzen zaigu izaten den giroa. Hori dela eta, ideia polita iruditu zitzaigun Altsasun horrelako kontzentrazio bat antolatzea, eta bihar izanen da.

2.- Zenbat denbora daramazue prestaketa lanetan?
Bi hilabete inguru daramazkigu buru-belarri prestaketa lanetan. Azpimarratzeko modukoa da denbora horretan zehar kolaboratzaileengandik jaso dugun laguntza. Zumalakarregi enparantzako tabernak, Urbasako campinga, Ramiro autoeskola, Txartel paperdenda, Juga tailerra... Ez dira asko, baina sekulako laguntza eskaini digute.

3.- Topaketa hau antolatzen duzuen lehenengo urtea da. Jarraipena emateko asmorik?
Bai, gure asmoa urtero egitea litzateke. Zumalakarregi enparantzara jende asko hurbiltzen bada eta ondo pasatzen badute, gure helburua betetzat emango dugu. Hori lortzen badugu, ekimenari jarraipena ematea gustatuko litzraiguke.

4.- Ekainaren 30ean itxi zen izena emateko epea. Zenbat lagunek parte hartuko dute?
Momentuz 64 auto daude izena emanda. Hala ere, azken unean beti izaten da parte hartzeko asmoz deitzen duen norbait, beraz, kopuru hori oraindik handitu daiteke. Horrez gain, eguerdian Urbasako campingean izanen den bazkarirako 100 pertsonak eman dute izena.

5.- Aipatu proiektua abiatu zenutenean halakorik espero zenuten?
Ez, inondik inora. Gure aurreikuspena 30 kotxe inguruk parte hartzea zen, eta azkenean kopuru horren bikoitza lortu dugu. Benetan pozik gaude, batez ere kontuan hartuta lehenengo urtea dela. Orain falta den gauza bakarra Zumalakarregi plazara jende asko hurbiltzea da.

6.- Noiz kontsideratzen da auto bat klasiko?
Kontsiderazio horretan batez ere autoaren adina da kontuan hartzen dena. Kotxe batek klasiko izateko 25 urte baino gehiago izan behar ditu. Ezaugarri tekniko eta antzerakoek ez dute garrantzirik auto bat klasiko gisa izendatzeko garaian.

7.- Urteen joanaren ondorioz mantentze lanak zailagoak izango dira...
Bai, akaso hori da aspekturik konplexuena. Piezak bilatzea oso zaila da, ez dituelako jende askok ekoizten. Askotan, gainera, pieza horiek urruneko herrialderen batean fabrikatzen dira, eta horiek hona ekartzea oso zaila izaten da. Era berean, pieza horien prezioa oso altua izan ohi da. Lan oso nekekoa da, baina autoa egoera onean mantendu nahi izanez gero, ezinbestekoa da.

8.- Gaur egungo autoak eta auto klasikoak konparatu ezker, zeintzuk dira desberdintasun nabariak?
Oraingoak lehenengoak baino askoz ere seguruagoak dira. Egungo autoek denetarik dauka-

te, segurtasun prestazio garrantuak barne. Duela 25 urteko autoek, alde horretatik, jostailuzkoak dirudite. Hala ere, lehenengo autoek oraingoak ez duten xarma berezi bat dute. Gainera, nahiz eta egungoak bezain seguruak ez izan, gehiago irauten dute. Oraingo kotxeek badirudi iraungitze data bat daukatela. Behin adin batera iristen direnean, arazoak besterik ez dituzte ekartzen.

9.- Sakandarrek auto klasikoekiko zaletasunik badute?
Bai, uste dut hemengo jendea auto klasikoak eta, oro har, autoak asko gustatzen zaizkiola. Hor-taz, larunbatean jende ugari bilduko delakoan nago.

10.- Auto klasikoekiko zaletasunaz dihardugula, zuri noiztik datorkizu auto hauekiko afizioa?
Esan bezala, auto klasikoek kontzentrazio askotan izan gara, eta horietan izan ostean zaletasuna erruz sortzen zaizu. Gainera, hemen egiten den topaketa antolatzen aritu garenez, esan daiteke auto klasikoek inguratuta ibili garela. Lehendik ere banuen zaletasuna, baina horren guztia- ren ondorioz handitu egin zait.

11.- Marka askotako autoak ikusteko parada izanen dugu larunbat honetan. Horien artean baduzu kuttunik?
Gehien gustatzen zaizkidanak Alpine, Seat 124 eta Renault 5 dira, akaso horiek direlako gehien ikusten ditudanak. Agian larunbatean besteren bat ikusi eta lehentasunak aldatuko ditut.